

Kontaminazioa neurtzeko makina Floridan, auzotarrak kejatuta

■ Eusko Jaurlaritzak jarri du, udalaren eskariz ■ Floridako auzotarrak urtetan kejatuta dira, hauts beltz-beltza iristen zaiela-eta ■ Zurrumurruak badabiltza, baina, ez dago garbi zerena izan daitekeen.

EUSKO JAURLARITZAK airea analizatzeko makina jarri du Floridan. Auzotarrek urte luzeetan salatu dute airea kutsatuta dagoela. Itxura denez, hauts beltz-beltza iristen zaie etxeetara eta egunero aritzen dira garbitzen.

Udalera iritsitako kejak direla-eta, udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio makina jartzeko eta hilabete osoan egongo da bertan. Etxeberrira sartzeko lehenengo kruzea hartu eta hor dagoen aparkalekuan dago.

'KAPOTE'KO BLOKEEK KALTE HAUNDIENA

Kapoteko blokeetan bizi direnak kejatuta dira gehiena. Haietako batzuk Kronikari esan diotenez, "beti aritu behar izaten degu balkoia eta leihoak garbitzen, baina, batzuetan harrigarria izaten da: puxkak sumatzen dira, ez hautsa bakarrik!". "Ikusi degu makina nun jarri duten, baina, arazo haundiena hemen dago, ez jarri duten lekuan".

ARAZO KONPONTZEKO SAIAKERAK EGINAK

Aurreko urteetan, udalak egin izan ditu Floridan kutsadura neurtzeko frogak. Hautsa analizatu dute, baina, neurketa

ofizialak Eusko Jaurlaritzak egiten ditu. Bestalde, bizilagunek esan digutenez, orain dela zazpi-zortzi urte, inguruko fabrikek *filtro* antzekoak jarri zituzten tximinetan "ordu nabaritu zen diferentzia. Ez erabat kentzeraino, baina, nabaritu zen. Orain, berriz, hasieran bezela gaude".

AZTERKETA ZEHATZAGOA

Olatz Urrutibeaskoa Udaltxeko Ingurugiro buruak esan du "lehenbizi jakin behar dugu kutsadurarik badagoen eta balego, zerk sortzen duen ikusi. Ondoren, neurriak hartu beharko ditugu gehiago izan ez dadin". Horregatik, makina hori ekarri dute, airea zehatz aztertuko duena. Hilabete egongo da Floridan eta berak esango du, airean zer sustantzia dabilen.

HIPOTESI ZIURRIK EZ

Inork ez daki seguru nondik datorren hautsa. Bertako bizilagunek inguruko enpresei begiratzen die. Udaltxeko Ingurugiro sailak esan digunez, berriz, enpresa horiek garbi utzi nahi izan dute berak ez dutela inongo parterik horretan. □



Airea aztertzen ari den makina. Elkarte Autonomoan bi daude.

ESKOLARTEKO KIROLA

Igeriketa pruebak bihar kiroldegian

■ Gazteek igeriketa pruebak izango dituzte bihar 09:00etan hasita. Denera, 120 bat ume arituko dira igeri.

IGERILEKUA ITXIA

Goizeko 09:00etatik 11:00etara jendearentzat itxita egongo da igerilekua. Probak bukatzean irekiko dute berriro ere. □

Musika instrumentu tradizionalen erakusketa



Daniel Peral arrabita jotzen.

DANIEL Peral hernaniarrak musika instrumentu tradizionalen erakusketa jarriko du Biterin. Daniel Peral artisaua da eta berak egiten ditu musika instrumentuak: arrabita (rabel) kriskitina, albokak eta abar.

Reinosan jaiotako hernaniarrak gaur bertan zabalduko du erakusketa eta datozen asteetan egongo da irekita 18:00etatik 20.00etara. □

Behemendi azoka larunbatean

■ Plaza Berrian 09:30etatik 14:00ak arte.

BEHEMENDIKO azoka Hernanin izaten dugu hileroko bigarren larunbatean. Bihar ere inguruko baserrietako produktuak salduko dituzte, baserrietarrek berak.

Hernaniko baserrietarrek sagar, udare eta ardi gaztak izango dituzte azokan saltzeko. Horrez gain, Tolosako babarrunak, kiwiak, inxtaurrak, oreinaren haragiz egindako txorixo, eta saltxitxoia, ezti, propoleoa, etxeko postreak, loreak, ukenduak eta abar. Izango da non aukeratu. □

Euskal dantza ikastaroa larunbat goizetan

San Juan Konpartsak Euskal dantzak ikasteko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa larunbat honetan hasiko da, urtarrilaren 12an. Larunbatero izango dira,

Biteri kultur etxean, goizeko 11:30etatik aurrera. San Juan Konpartsak dantza horiek ikasteko gogoz dauden guztiak animatu ditu. □

ZINEA BITERIN

'Ni una palabra' eta 'El Mosquetero'

■ Asteburu honetan ere helduentzat eta umeentzat zinea izango da Biterin. Gaur, 22:30etan, *Ni una palabra*. Bihar eta etzi, 17:00etan, *El Mosquero*. □



EGUZKI PERFUMERIA

Gure denda berrituan, behar duzun eskaintza daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Boutique
- Edertze gela
- Solariuma

EGUZKI PERFUMERIA

Kale nagusia 45 - Tel. 943 551 333 - HERNANI

Arrigoain jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)

☎ 943 550097

-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

'Berriak'-ek 2003ko Erregeen Kabalgata antolatzeke bilera konbokatatu du

■ Kabalgata antolatzeke interesa duten kolektibo guztiak konbokatatu ditu ■ Merkatari elkarteak prentsa oharra kaleratu du aurten egin ez den Kabalgatari buruz.

KABALGATAREN kontuak zer esana ematen jarraitzen du. Oraingoan, Berriak merkatari elkarteak bere postura argitu du eta datorren urteko Kabalgata egiteko bilera konbokatatu ere bai. Bilera datorren asteartean izango da, urtarriak 15, Sandiusterrin, arratsaldeko 15:00etan.

LAGUNTZA EKONOMIKOA
Berriak elkarteak prentsa oharra kaleratu du aurtengo Kabalgatari buruz elkartera iritsitako komentarioei buruz. Argi utzi

nahi du Erregeen Kabalgata antolatzeke "eskatu izan zaion laguntza, beti, laguntza ekonomikoa" izan dela. Eta Berriak beti eman izan duela laguntza hori. Iazko abendu hasieran, berriro ere merkatari elkarteari laguntza eskatu zitzaion. Berriak la-guntza ekonomikoa eman eta "orduan esan zitzaigun eskatzen zitzaiguna zela Kabalgata bera antolatzeke jendea", dio elkarteak.

Berriak dio Kabalgata ezin dela inprobisatuta antolatu eta, Berriak ezin zuela

konprometitu kabalgata antolatzeke". Batetik Gabon bezperak eta bestetik euroa, urte bukaeran eta hasieran "lan extra bat" zuten aurten merkatariak. Kabalgata antolatzeke "jendea eta denbora eskatzen du eta gu ezin ginen iritsi" dio Berriak prentsa oharra.

Gauzak horrela, Berriak barruan eta kanpoan ere Kabalgata interes handia sortu duela ikusita, Merkatari elkarteak 2003ko Kabalgata antolatzeke bilera konbokatatu du.

ERREMONTA - BINAKAKO TXAPELKETA

Zeberio-Iriarte aixa: 40-18

■ Iñigo-Lizaso ezinean aritu ziren ■ Irabazleek finalurrekoetan dute hanka bat.



Zeberio, Iriarte, Iñigo eta Lizaso, atzo, partidua bukatuta.

BINAKAKO txapelketako partidua zen atzo Galarretan, baina, ez zen punta puntakoa atera. Zeberio eta Iriartek ez zuten kontrario izan eta 40-18 gailendu zitzaizkien Iñigo eta Lizasori.

ALTUNA I-ETXABEK, EZIN
Etxabek txapelketaz kanpoko partidua jokatu zuen atzo Galarretan. Altuna I bikote zuela, Ezkurra-Aizpuruaren kontra jokatu eta justugatik galdu zuten: 40-36.

Atzo egin zituzten Galarretan lehen apustuak eurotan. □

ESKOLARTEKO KIROLA -ASTEBURUKO PARTIDUAK-



Umeak saskibaloian jokatzen, eskolarteko kirolean.

FUTBOLA	TALDEAK	NON	BIHAR	SASKIBALOIA	TALDEAK	NON	BIHAR
Infantil mut.	Urumea-Utarregi	Zubieta	9:00	Infantilak	STL. Azkune-Inmugulata	Donostia	
Infantil nek.	Langile-Loiola	Donostia		Infantilak	Langile-Auzara BHI B	Kiroklegia	11:45
ESKUBALOIA	TALDEAK	NON	BIHAR	Alebinak nek.	Urumea-Lazalle A	Kiroklegia	9:15
Alebinak	Urumea-Elizatzko A	Urnietza	9:00	Alebinak mut.	Langile B-Herrera	Kiroklegia	10:15
Alebinak	Egape B-Elizatzko B	Urnietza	10:00	Alebinak nek.	Elizatzko-Belen B	Kiroklegia	10:45
PELOTA	TALDEAK	NON	BIHAR	Alebinak nek.	Langile-Orize	Kiroklegia	11:15
Infantilak	Salenarrak-Langile B	Urnibal	16:00	Alebinak mut.	San Patricio-Inmugulata	Donostia	
Infantilak	Utarregi B-Elizatzko	Urnibal	16:30	Alebinak mut.	Langile A-Mary Ward A	Kiroklegia	9:15
Infantilak	Langile A-Utarregi A	Urnibal	17:00	IGERIKETA	TALDEAK	NON	BIHAR
Alebinak	Elizatzko A-Langile C	Kiroklegia	9:30	Benjaminak	Talde guztiak	Kiroklegia	9:00
Alebinak	Urumea-Elizatzko B	Kiroklegia	10:00				

BOLA - ERREGENETAKO SARIA

Migel Arrozpide aurrena, Legazpiko tiraldian

■ Antonio Miner hirugarren gelditu zen ■ Asteburu honetan Ekipokako Txapelketa hasiko da, Mutiloan.

HERNANIARREK paper ona egin zuten Legazpin Erregeetako sarian. Bi bolatokitian jokatu ziren txapelketak (Murun eta Hotel Mauleonen). Murun egindako tiraldian, Migel Arrozpide CD-ko bolaria aurrena gelditu zen 36 brila botata. Gauzak estu izan ziren, ordea, bigarrenak eta hirugarrenak ere 36na brila bota zituztelako. Bigarren Martin Retegi idiazabal-darra gelditu zen eta hiruga-

rron Antonio Miner Ur-Mia taldeko bolari hernaniarra

TXAPELKETA EKIPOKA
Igande honetan Taldekako txapelketa hasiko da Mutiloan. Txapelketa bi igandetara da eta bigarren saioa, Añorgan izango da.

Hernaniko ekipoek lehen ere irabazi izan dute txapelketa hori: 1997-98-99an CD Hernanik irabazi zuen. □

79 donazio urtarrilean

■ Hilero bezala, asteartean izan zen Hernanin odol emateko eguna. Odol erreserbak eskasian egon diren honetan, Hernanin 79 poltsa odol bildu dira, iazko batz bestekoaren goitik.



Hernaniar bat odola ematen.

ZAZPI BERRI

Daturik positiboetako bat odol emate berriena da. Urtarrilean 7 izan dira, normalean baino gehiago. Bestalde, asteartean organu donante berri bat ere egin zen. □

TXANTXANGORRI

Ehiza Txapelketako sariak gaur banatuko dira

■ Abenduaren 16 eta 23an jokatu zen Txantxangorri antolatutako Ehiza Txapelketa eta gaur gauean banatuko dira sariak. Iñaki Loiarrek atera zituen puntu gehiena: bi igandetan 1.112 puntu, 11 pieza botata. Bigarren Gerardo Beraza gelditu zen 1.018 punturekin, eta hirugarren, berriz, Cristobal Barragan izan da, 806 puntu aterata. Afaria 20:30etan izango da. □

Barrikotea Peñan

■ Peña Otaño elkarteak barrikotea egingo du gaur iluntzean. Sagardo denboraldi aurretik barrikote dezente egiten dira. Peña Otaño denboraldi honetako hirugarrena du. Afaria iluntzeko 20:30etan izango da. Sagardoa, Petritegikoa.

IRRATIAK

(E.M. 99,2) 11:40: Txe Zuza, Mendiriz Mendiko kidea, 9 orduko mendi ibilaldia buruz. 12:00: Antiguako jaiak. 12:30: Martindegiko bertso afariari buruzko informazioa.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoa: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Autobusak: 943 556662
☎ Anbulatorioa: 943 557750
☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087
☎ Gaez: Elizondo
Andoain. Zumea 30
☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

■ Astebuetarako zerbitzaria behar da Hernaniko jatetxe batean. Deitu 943 330291

■ Donostiako Antigua auzoan, euskaraz dakien pertsona bat behar dugu goizetan haurra zaintzeko. Deitu 943 215510 (Amaia)